



BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAREN EBAZPENA, PORTUKO ASKOTARIKO ZERBITZU TEKNIKO-NAUTIKOEN TARIFEN EGUNERAKETA ONESTEARI BURUZKOA (ONTZIAK GIDATZEA, ATOIAN ERAMATEA, AMARRATZEA ETA AMARRAK ASKATZEA)

Zuzendaritzaren ebazpenari buruzko txosten-proposamenarekin bat etorritik, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen 2022ko otsailaren 25ean egindako saioan:

1.- 2022ko martxoaren 15etik aurrera % 5eko gehikuntza lineal bat onestea Bilboko Portuko ontziak gidatzeko, atoian eramateko, amarratzeko eta amarrak askatzeko zerbitzu tekniko-nautikoetarako onetsi diren eta indarrean dauden gehieneko tarifetan.

2.- Erabaki hori argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bilboko Portuko Agintaritzaren webgune korporatiboetan eta egoitza elektronikoan.

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.1. artikuluko c) atalean xedatutakoari jarraikiz. Haren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluan, hilabeteko (1) epean, aipatutako legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi (2) hilabeteko epean, interesdunari ebazpen honen berri eman eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1 m) eta 46. artikuluekin bat 8.3. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta egokitzat jotzen den beste errekurtsoren bat jartzea gorabehera.

Santurtzin, 2022ko otsailaren 25ean.- Lehendakaria, Ricardo Barkala Zumelzu. Idazkaria, Juan Carlos Verdeal Pinto.





RESOLUCIÓN DE LA AUTORIDAD PORTUARIA DE BILBAO SOBRE APROBACIÓN DE LA ACTUALIZACIÓN DE LAS TARIFAS DE LOS DIFERENTES SERVICIOS PORTUARIOS TÉCNICO-NÁUTICOS (PRACTICAJE, REMOLQUE, AMARRE Y DESAMARRE DE BUQUES)

De conformidad con el informe propuesta de resolución de la Dirección, el Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Bilbao, en la sesión celebrada el 25 de febrero de 2022, se adoptaron, entre otros, los siguientes acuerdos:

1º.- Aprobar, con efectos a partir del 15 de marzo de 2022, un incremento lineal del 5% en las vigentes tarifas máximas aprobadas de los servicios técnico-náuticos de practicaaje, remolque y amarre y desamarre de buques del Puerto de Bilbao.

2º.- Publicar el anterior acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia, en la Sede Electrónica y webs corporativas de la Autoridad Portuaria de Bilbao.

Contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa a tenor de lo dispuesto en el artículo 114.1 c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, puede interponerse, potestativamente, de conformidad con lo dispuesto en sus artículos 123 y 124, recurso de reposición ante el Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Bilbao en el plazo de un (1) mes, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos (2) meses, en ambos casos a contar desde el día siguiente a su notificación, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 8.3, en relación con los artículos 10.1 m) y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, sin perjuicio de que se formule cualquier otro recurso que se estime procedente.

Santurtzi, 25 de febrero de 2022.- El Presidente, Ricardo Barkala Zumelzu. El Secretario, Juan Carlos Verdeal Pinto.

